

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 13a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Castejongo Udaleri buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa (33. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Castejongo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Castejongo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Castejongo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Castejongo Udala (3. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (3. or.).
 - II.2. Araubide juridikoa (5. or.).
- III. Helburua (5. or.).
- IV. Norainokoa (5. or.).
- V. Iritzia (6. or.).
 - V.1. Kontu orokorra (6. or.).
 - V.2. Legezketasuna (6. or.).
 - V.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzariora (6. or.).
 - V.4. Ganbera honek 2006ko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino ezarri diren (8. or.).
- VI. Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena (8. or.).
 - VI.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria. 2010eko ekitaldia (9. or.).
 - VI.2. Udalaren 2010eko ekitaldiko aurrekontu-emaizta (10. or.).
 - VI.3. Udalaren 2010eko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (10. or.).
 - VI.4. Udalaren 2010eko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea (11. or.).
 - VI.5. Udalaren 2010eko galeren eta irabazien kontua (12. or.).
- VII. Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (13. or.).
 - VII.1. Alderdi orokorrak (13. or.).
 - VII.2. Udalaren 2007tik 2010era bitarteko aurrekontuen eta 2011ko aurreikuspenen likidazioaren bilakaera (13. or.).
 - VII.3. Langile-gastuak (16. or.).
 - VII.4. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).
 - VII.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (19. or.).
 - VII.6. Inbertsioak (20. or.).
 - VII.7. Finantza-zama (22. or.).
 - VII.8. Tributu bidezko diru-sarrerak (23. or.).
 - VII.9. Bestelako diru-sarrerak (25. or.).
 - VII.10. Hirigintza (25. or.).
 - VII.11. Gorabeherak eta zalantzak (26. or.).
 - VII.12. Erakunde autonomoak (26. or.).
- 1. eranskina. Udalaren organigrama, 2010eko abenduaren 31 (28. or.).

I. SARRERA

2010eko ekainaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabakia hartu zuen, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eskatuta:

“Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea Castejongo Udalaren kontuei buruzko fiskalizazio txosten bat egin dezan, 2007tik 2009ra arteko ekitaldi-
ei buruzkoa, eta hartan etorkizuneko bideragarritasun ekonomikoa zehaztea, bai eta bideragarritasun hori zaintzeko hartu beharreko saneamendu ekonomikoko neurriak finkatzea ere, kasua bada.”

Parlamentu-eskari hori baino lehen, udaleko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 22ko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea, parlamentu-erabaki horretan jasotako termino berberekin.

Udalaren erabakian honakoa azpimarratzen da: “udalak 2009ko abenduaren 31n duen egoera finantzario larria; horren arrazoia da udalak, azken urte hauetan, aparteko diru-baliabideak eskuratu izan dituela –ziklo konbinatuko zentral elektrikitik heldutako 6 milioi euro eta ondarearen salmentaren bidez lortu dituen 4 milioi euro–, udalaren zorpetzea nabarmen handitu dela –7 milioi 2007an eta 11,5 milioi 2009an– eta antzeman dela udalaren inbertsioek nabarmen egin dutela gora. Datu horiei guztiei erreparatuta antzematen da kezka dagoela udalaren beraren etorkizun ekonomikoari buruz; are gehiago egungo krisi ekonomikoaren testuinguruan.”

Eskatutakoak betetzeko, Ganbera honen 2011ko Fiskalizazio Programan sartu zen azterlan hori egitea. Parlamentuaren eta udalaren eskari hori 2007tik 2009ra arteko aldira luzatzen bada ere, gure lana 2010eko ekitaldiaren azterketan

zentratuko da, nahiz eta zehatza analizatuko den zehatz analizatuko den hark 2007ko ekitalditik izan duen egoera ekonomikoaren bilakaera. 2011ko abenduan, Ganberak txosten bat igorri zuen udalaren 2006ko ekitaldiko kontuei buruz.

Zelaiko lana 2008ko maiatzetik ekainera bitartean egin du hiru auditoretza-teknikariz eta auditore batez osaturiko talde batek. Talde horrek Comptos Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzatza izan du.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, udalaren ezaugarri nagusiak eta haren araubide juridikoa aipatzen dira. Hirugarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira eta laugarrenean, berriz, egindako lanaren norainakoa. Bosgarrenean, udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia agertzen dugu; seigarrenean, aipatu kontuaren laburpen bat jaso dugu. Zazpigarren atalean iruzkinak, ondorioak eta gomendioak ematen ditugu, gure ustez egokiak direnak udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua eta barne kontrola hobetzeko. Honekin batera doan eranskinean, udalaren 2010eko abenduaren 31ko organigrama bildu dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. CASTEJONGO UDALA

II.1. DATU OROKORRAK

Castejon herria Nafarroako Erriberan dago, eta 2010eko urtarrilaren 1ean 4.306 biztanle dauzka. Zerbitzuak emateko, bi erakunde autonomo sortu ditu: “Solidaridad” Zaharren Egoitza eta Musika Eskola. Honakoak dira 2010eko abenduaren 31ko kopuru ekonomiko aipagarrienak:

Entitatea	Zenbatekoa		Langileak, 2010-12-31n
	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	
Castejongo Udala	7.439.641	7.467.189	29
"Solidaridad" Zaharren Egoitza	783.585	779.708	20
Musika eskola	133.833	133.833	9
Likidazioa, guztira (bateratu gabe)	8.357.059	8.380.730	58
Bateratutako likidazioa, guztira	7.989.317	8.014.624	

Udalak ez du sozietate publikorik eratu, eta honako mankomunitateetan hartzen du parte:

- Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zeinaren bidez honako zerbitzuak ematen baitira: hiri hondakin solidoak kudeatzeko eta tratatzeko zerbitzuak; bideak garbitzeko zerbitzuak, txakurtegia a eta EEZBaren (Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa) bitartez etxebizitza

tzak eta eraikinak zaharberritzeko hirigintza-kudeaketak.

- Ebroko Kirol Mankomunitatea, zeinaren bidez kudeatzen baitira eskualdeko beste udal batzuekin batera egiten diren kirol jarduerak.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Emakida	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x				
Udaltzaingoa	x				
Musika eskola		x			
Zahar-etxea		x			
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	x				
Osasun arloko garraioa					x
Hilerria	x				
Hirigintza	x		x		
Uraren goi presioko homidura					x
Uraren behe presioko homidura	x				
Hiri hondakinak			x		
Bideak garbitzea			x		
0-3 urtekoen ikastetxea					x
Sarasate kultur etxea	x				
Oinarizko gizarte zerbitzua	x				
Gazteentzako informazio gunea	x				
Udal kiroldegia				x	
Igerilekuak				x	
Kirol jardueren kudeaketa	x		x		
Zentro mediko eta hezkuntzako mantentzea	x				
Liburutegia	x				
Museoa	x				
Udalaren futbol zelaia	x				
Wifi publikoa					x
Ludoteka					x
Gizarte Etxea					x
Energia ikasgela	x				
Kontsumitzailea informatzeko zerbitzua					x

Historikoki, udalaren jarduera ekonomikoa bertako trenbide-lotunearen garrantziak markatu du; gaur egun, gainera, nabarmentzekoak dira industria sektorea (eraikuntza, metalurgia eta kontserbak) eta ziklo konbinatuko bi zentral elektrikoa.

II.2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Castejongo Udalari 2010eko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.
- Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretua, Enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Castejongo Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

1. Ea Castejongo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan; hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere jarraikiz aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei.

2. Berriozarko Udalak eta bere autonomoek 2010ean aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

3. Udalaren egoera finantzarioa 2010eko abenduaren 31n eta 2007tik 2010era izan duen bilakera.

4. Ganbera honek 2006ko fiskalizazio txostenaren eman zituen gomendioak noraino ezarri diren.

Txostenari erantsi zaizkio halaber egokitzen diren gomendioak, udalak eta haren erakunde autonomoek ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate nahiz kudeaketa sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

IV. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Castejongo Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Udalaren kontu orokorra entitatearen beraren kontuak eta haren erakunde autonomoenak osatzen dute, eta honako egoera-orri finantzarioak bilatzen ditu, besteak beste:

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen aurrekontuaren betetzearen egoera-orri bateratua.
- Ekitaldiaren eta banakako diruzaintza-gerakinen aurrekontu- emaitza, entitatearena nahiz bere erakunde autonomoetako bakoitzarena.

- Egoeraren balantze-orria eta galeren eta irabazien kontua, banakakoak, entitatearenak eta erakunde autonomo bakoitzarenak.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena, besteak beste.

Erakunde autonomoen kudeaketa administrati-boa eta kontabilitatekoa udalak egiten ditu, zuzenean. Hala eta guztiz ere, aurrekontuaren likidazio egoera baizik ez da bateratu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedurak ere; ebaluatu dira, halaber, udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak.

2007tik 2010era arteko aldiko egoera finantza-rioren bilakaera aztertzeko, ganbera honek gisa honetako lanetan erabiltzen dituen magnitude, ratio eta adierazleak aplikatu dira.

V. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoari loturik, Castejongo Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren beraren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioz-tatu dugu:

V.1. KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1998koa da eta ez da formalki gaurkotu, nahiz eta ondasunak

kostuen fitxetan erregistratzen diren. Hortaz, ezinezkoa izan da udalaren ibilgetuaren kontabilitate saldoa –43,05 milioi eurokoa, 2010eko abenduaren 31n– zentzuzkoa dela egiaztatzea. Bestalde, ez da erakunde autonomoen inbentariorik ageri.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Castejongo Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behin-etan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

V.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoari erreparatuta, udalaren eta haren erakunde autonomoen jardun ekonomiko-finantzarioa, orokorrean, legezketasun printzipioaren arabera garatzen da; halere, erakunde autonomoetan zenbait ez-betetze ikusi ditugu langileak kudeatzearen arloan.

V.3. 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Castejongo Udalak eta haren erakunde autonomoek 7,28 milioi euroko hasierako aurreikuspen bateratuak dauzkate; aurreikuspen horiek 1,19 milioiko igoera izan dute aurrekontu-aldaketen bidez –ehuneko 16ko hazkundea–. Honakoak dira horren arrazoiak: inbertsiorako gastuetan izan den igoera eta hari dagokion finantziarioa.

Aitorturiko betebeharrak 7,99 milioi egiten dute, eta ehuneko 94ko exekuzio maila eta ehuneko 83ko ordainketa-ehunekoa ageri dute; diru-sarretan, aitorturiko eskubideek 8,01 milioi egiten dute, ehuneko 95eko betetze-mailarekin eta ehuneko 94ko kobrantza-ehunekoarekin.

Gastu bateratuko 100 euroko kopuru bakoitza honakoetarako erabili da eta honako bidez finantzatu da:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza-bidea	Zenbatekoa
Langileak	32	Tributu bidezko diru-sarrerak	50
Bestelako gastu arruntak	32	Transferentziak	47
Inbertsioak	25	Ondare bidezko diru-sarrerak	3
Finantza-karga	11		
	100		100

1,02 milioiko aurrezki gordin bateratua dauka, nahiz eta zorpetzetik heldu den finantza-zamak, 890.445 eurokoak, ia guztiz xurgatzen duen. 127.176 euroko aurrezki garbi bateratuta geratzen da. Horrenbestez, entitateak finantziazio-tarte murrizta du inbertsioetara bideratzeko. Haren zorpetze-maila ehuneko 14,75ekoa dela kalkulatu da. Bi puntuko ehunekoa gelditzen zaio zorpetzearen gehieneko maila edo muga ekonomikora iristeko.

2010eko abenduaren 31n, zor bizia 10,91 milioi eurokoa da: diru-sarrera arrunten ehuneko 179 egiten du, zorpetze berria hartzeak gaur egun baimentzen duenaren ehuneko 75etik oso gora.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakin ez-bateratua ondoren adierazitakoak dira:

Magnitudea	Udala	Zahar-etxea	Musika eskola
Aurrekontu-emaizta doituak	111.722	-3.877	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	-72.899	-9.985	8.695
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-135.000	-9.985	8.695

Udalaren aurrekontu-emaizta doituak gutxitze handia ageri du 2009an lortutakoarekin alderatuta: 2,30 milioi euro. Udalaren eta zaharren egoitzaren diruzaintzako gerakinak balio negatiboak ageri ditu. Hori dela eta, 270/1998 Foru Dekretuko 103. artikuluan ezarritako neurriak aplikatu beharko

dira; 2009an, udalaren gastu orokorren gerakina positiboa izan zen, 199.599 eurokoa hain zuzen.

Ondoko taulan 2007tik 2010era bitarteko aldirian ekitaldi horien likidazio bateratuan lortutako adierazle nagusien bilakaera erakusten dugu.

Adierazlea	2007	2008	2009	2010
Diru-sarrerak, guztira	14.075.875	14.251.823	11.174.085	8.014.624
Gastuak, guztira	14.706.685	15.552.799	9.328.505	7.989.317
Diru-sarrera aruntak	7.067.252	7.245.198	6.406.106	6.111.309
Gastu aruntak	5.476.846	5.479.733	5.265.959	5.348.876
Tributu bidezko diru-sarrerak	5.435.705	5.493.702	4.519.849	4.019.517
Funtzionamendu-gastuak	5.232.595	5.087.717	4.870.353	5.093.693
Inbertsio garbian eginiko gastuak	6.353.296	8.175.168	3.350.832	2.004.679
Langile indizea, ehunekotan	16,59	16,89	26,46	32,37
Inbertsio indizea, ehunekotan	58,87	61,38	37,03	25,10
Transferentzia aruntekiko mendekotasuna, ehunekotan	10,54	11,32	15,36	22,73
Aurrezki gordina	1.834.657	2.157.481	1.535.753	1.017.616
Finantza-karga	756.825	913.204	1.004.120	890.445
Aurrezki garbia	1.077.832	1.244.277	531.633	127.171
Itundutako maileguak	2.400.000	3.285.000	2.404.626	0
Zor bizia	6.980.863	9.744.675	11.540.786	10.912.315
Zor bizia/diru-sarrera aruntak	99	134	180	179
Zorpetze-maila, ehunekotan	10,71	12,60	15,67	14,57
Zorpetze-ahalmena, ehunekotan	15,25	17,17	8,30	2,08
Zorpetze-muga, ehunekotan	25,96	29,78	23,97	16,65

2007tik 2010eko aldiari buruz, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Guztizko diru-sarrerek ehuneko 43 egin dute behera, eta guztizko gastuek, ehuneko 46.

- Jatorriari erreparatuta, ikusten dugu diru-sarrera arruntek ehuneko 14 egin dutela behera; gastu arruntetan, berriz, beheratzea ehuneko 2koa izan da.

- Tributu bidezko diru-sarrerek ehuneko 26 egin dute behera; funtzionamendu gastuetan, ordea, portzentaje hori ehuneko 3koa da.

- Inbertsio garbiaren gastuetan izan den murrizketa handia nabarmendu behar dugu, ehuneko 68koa izan baita: 6,4 milioikoa izatetik 2 milioiko izatera pasa da.

- Guztizko gastua gutxitzean, langile gastuek garrantzi erlatibo handiagoa hartzen dute: 2007an ehuneko 17koak ziren, eta 2008an, ehuneko 32koak.

- Zor biziak ehuneko 57 egin du gora harik eta 11 milioiko mugara iritsi arte.

- Zorpetze-ahalmena nabarmen gutxitu da, eta ehuneko 2 eskasekoa da.

Horrenbestez, aurreko iruzkinek agerian uzten dute udalak mozketak handiak egin dituela bere aurrekontuen bolumenean, bereziki inbertsioen arloan. Logikoa da hori, behin azkeneko hamarkadan inbertsio-ahalegin handia –33 milioi euro ingurukoa– egin ondoren. Bestalde, funtzionamendugastuei eta gastu arruntei eustea lortu du. Horri gehituz gero tributu bidezko bere diru-sarreretan etorkizunerako nolabaiteko egonkortasuna lortu duela –horietan erabakigarriak dira zentral elektrikoetatik heldutako diru-sarrerak–, aukera du, gaur eusteko egungo mailari eusten badio eta zorpetze handia gorabehera, gaurko krisi ekonomiko eta finantzarioaren betekizunei aurre egiteko.

Hala eta guztiz ere, komeni da zehaztea bere zorraren ehuneko 98 2017tik aurrera amortizatuko dela, eta eragin negatiboa izan dezakeela ekitaldi horietako aurrekontu-orekan.

V.4. GANBERA HONEK 2006ko FISKALIZAZIO TXOSTENEAN EMAN ZITUEN GOMENDIOAK NORAINO EZARRI DIREN

Orokorrean, ondorioztatzen dugu ganbera honen 2006ko ekitaldiko txostenean jasotako gomendio nagusiak ezarri egin direla, honako salbuespenekin:

- Udal ondasunen inbentarioa ez da gaurkotu.

- Lurzoruaren udal ondareko erregistrorik ez dago, ez eta hirigintza-hitzarmenen erregistrorik ere.

Laburpen gisa eta amaierako ondorio gisa, ganbera honek uste du udala, herriari zerbitzu publikoen multzo oso bat eman ahal izateko, inbertsio-gastuak irmoki bultzatzeko aldi bat iragan ondoren –inbertsio horietatik gehienak zorpetzearen eta udal ondarea saltzearen bidetik finantzatu dira–, bere aurrekontuak egungo krisi ekonomikoaren betekizunen arabera egokitzen ari dela.

Datozen ekitaldietan, udalaren jarduera nagusiaren ardatza inbertsio horiei eustea izan beharko da, bai eta gainerako gastu arruntei kontrolpean eusteko eta aurrezteko neurriak aplikatzen jarraitzea ere.

Zorpetze maila handia badu ere, inbertsioen eta gastu arruntaren arloan aplikatutako euspenak, arestian aipatutakoak, eta, horrekin batera, etorkizunerako diru-sarrera egonkorren egitura bat egoteak, garrantzi espezifiko handikoak, aukera eman dezakete datozen ekitaldietan finantziazio premiei aurre egiteko, berriz ere zorpetzera jo gabe.

Hala eta guztiz ere, uste dugu honako alderdiei buruz gogoeta egin behar duela:

- Erakunde autonomoen funtzionamendua. Aztertu behar du ea egitura egokia daukaten udalaren tresna-entitate gisa, eta beren kudeaketa hobetu behar dute, batez ere arlo administratiboan eta langileen arloan.

- Derrigorrezkoak izan ez eta udalak ematen dituen zerbitzuen autofinantziazioa lortzeko finantziario-bideak bilatzea.

- Kudeaketa administratiboa hobetzeko neurriak sartzeko, honakoak bezalako alderdietan: plantilla finkatzea, kostuak aztertzea eta tarifak eta prezioak egokitzea, ematen dituen zerbitzu batzuk dimentsionatuz, diru-sarrera berriak ekarriz, kanporatutako jardueren gaineko kontrol ekonomikoa indartuz eta abar.

Neurri horiek guztiak plan ekonomiko-finantzario batean jaso beharko lirakeke. Plan horrek, epe luzera, udalaren aurrekontu-politika orientatuko du.

VI. UDALAREN 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, udalaren 2010eko kontu orokorrak jasotzen dituen egoera-orri finantzarioen laburpen bat ematen dugu.

V1.1. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA. 2010eko EKITALDIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	% Betetzea	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordainzteke dagoena
1 Langile-gastuak	2.544.119,52	195.777,71	2.739.897,23	2.586.065,82	94,39	2.538.156,18	98,15	47.909,64
2 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.603.930,00	0	2.603.930,00	2.391.769,37	91,85	2.068.576,54	86,49	323.192,83
3 Gastu finantzarioak	329.018,14	0	329.018,14	255.182,86	77,56	255.182,86	100	0
4 Transferentziak	122.450,00	0	122.450,00	118.873,30	97,08	117.432,88	98,79	1.440,42
6 Inbertsio errealak	1.058.000,00	992.589,04	2.050.589,04	2.002.163,39	97,64	1.047.918,79	52,34	954.244,60
9 Pasibo finantzarioak	625.922,34	0	625.922,34	635.262,33	101,49	628.471,00	98,93	6.791,33
Gastuak, guztira	7.283.440,00	1.188.366,75	8.471.806,75	7.989.317,07	94,30	6.655.738,25	83,31	1.333.578,82

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubideak	Betetzea (%)	Kobrantsak	Kobrantsak (%)	Kobranteke dagoena
1 Zuzeneko zergak	3.007.000,00	0	3.007.000,00	3.050.335,54	101,44	2.944.913,45	96,54	105.422,09
2 Zeharkako zergak	200.000,00	0	200.000,00	65.600,86	32,80	65.059,91	99,18	540,95
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.189.585,00	0	1.189.585,00	903.581,07	75,96	787.931,29	87,2	115.649,78
4 Transferentzia aruntak	1.747.255,00	132.993,00	1.880.248,00	1.821.853,16	96,89	1.654.681,33	90,82	167.171,83
5 Ondare diru-sarrerak	146.600,00	0	146.600,00	269.938,50	184,13	216.976,19	80,38	52.962,31
6 Inbertsioen besterentzea	78.000,00	0	78.000,00	500,00	0,64	500,00	100,00	0
7 Kapital transferentziak	915.000,00	934.036,29	1.849.036,29	1.902.815,24	102,91	1.852.893,43	97,38	49921,81
8 Finantza-aktiboak	0	121.337,46	121.337,46	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0

VI.2 UDALAREN 2010eko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA.

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	10.611.769,25	7.467.188,66
- Aitorturiko betebeharrak	8.779.681,41	7.439.641,38
= AURREKONTU-EMAITZA	1.832.087,84	27.547,28
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideratze positiboa FAG	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa FAG	460.000,00	0
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0	84.174,90
= AURREKONTU EMAITZA DOITUA	2.292.087,84	111.722,18

VI.3 UDALAREN 2010eko ABENDUAREN 31ko DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2010eko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	2.396.253,47	541.617,58
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.342.540,57	464.364,43
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	975.894,79	1.335.114,06
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	1.148.195,1	106.649,37
Gastuak ordaintzea.	4.409,87	6.038,13
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-909.034,93	-1.108.642,96
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-132.376,34	-261.905,45
- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	3.198.054,29	2.133.434,05
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.423.128,86	1.291.532,16
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	615.980,83	455.814,06
(+) Diru-sarreraren itzulketa	1.727,14	0
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.157.217,46	386.087,83
+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK	604.184,69	1.518.917,04
+ FINANTZIAZIOKO DESBIDERATZE METATU NEGATIBOAK	460.000,00	0
= DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA	262.383,87	-72.899,43
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	62.784,71	62.100,71
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	199.599,16	-135.000,14

VI.4. UDALAREN 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERARI BURUZKO BALANTZEA

AKTIBOA

Deskribapena	2010	2009
A IBILGETUA	43.047.807,72	41.055.378,19
1 Ibilgetu materiala	15.244.480,15	14.084.951,26
2 Ibilgetu ez-materiala	783.422,06	703.497,28
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	26.509.807,43	25.792.504,30
4 Hemi-ondasunak	510.098,08	474.425,35
C ZIRKULATZAILEA	3.607.962,64	4.231.914,10
8 Zordunak	1.991.889,53	3.530.573,35
9 Kontu finantzarioak	1.616.073,11	701.340,75
AKTIBOA, GUZTIRA	46.655.770,36	45.287.292,29

PASIBOA

Deskribapena	2010	2009
A FUNTS BEREKIAK	33.291.450,44	30.351.813,92
1 Ondarea eta erreserbak	6.327.195,41	6.327.195,41
2 Emaizta ekonomikoak (etekina)	14.750.186,73	13.713.365,45
3 Kapitaleko diru-laguntzak	12.214.068,30	10.311.253,06
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	10.896.108,81	11.531.371,14
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	10.896.108,81	11.531.371,14
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.468.211,11	3.404.107,23
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	2.206.305,66	3.271.730,89
6 Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldirkatzearen ondoriozko doitzeak	261.905,45	132.376,34
PASIBOA, GUZTIRA	46.655.770,36	45.287.292,29

VI.5 UDALAREN 2010eko GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

ZORRA			HARTZEKOA		
AZALPENA	2010	2009	AZALPENA	2010	2009
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen homidurak	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen homidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	352.590,63	396.192,53
61 Langileria-gastuak	1.931.173,58	1.749.756,14	71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	441.671,95	319.853,32
62 Gastu finantzarioak	253.860,92	393.401,66	72. Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.919.356,00	3.335.308,56
63 Tributuak	23,74	23,51	73 Zerga aruntak, errentaren eta ondasunaren gainerakoak	190.692,70	186.733,42
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	2.143.105,94	2.123.574,15	75 Ekitaldiko emaitzeta ardatuniko diru-laguntzak eta dohaintzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	2.206,20	1.323,72	76 Transferentzia aruntak	1.651.629,64	1.577.413,16
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	5.887,70	21.693,77
67 Transferentzia aruntak	481.579,14	449.604,41	78 Bestelako diru-sarrerak	2.544,80	6.595,27
68 Kapitaleko transferentziak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikaturiko homidurak	0	0
69 Amortizazio eta homiduretarako homidura, ekitaldikoa	0	0			
Ekitaldiko emaitza arunta (saldo hartzekoduna)	752.423,90	1.126.106,44	800 Ekitaldiko emaitza aruntak (saldo zorduna)		
GUZTIRA	5.564.373,42	5.843.790,03	GUZTIRA	5.564.373,42	5.843.790,03

VII. UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolleko sistemak hobetzeko.

VII.1. ALDERDI OROKORRAK

Kontu orokorrak udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazioaren egoera-orri bateratua bakarrik dauka; gainerako egoera-orriak banaka erakusten dira.

Gastuetarako kredituen muga-izaera ez da beti errespetatzen, ez lotura-multzoei dagokienez, ez eta kapituluaren guztizko zenbatekoari dagokionez ere.

Antzeman dugu egoera txarrean dagoela dokumentazioaren artxiboa, bereziki aurreko ekitaldietakoa.

Inbentarioa, zeina 1998koa baita, ez da gaurkotu.

Hona gure gomendioak:

- *Kontu orokorrean aurkeztea lege indardunetan ezartzen diren egoera-orri bateratuak.*

- *Aurrekontu aldaketen figuraz baliatzea gastuetarako kredituen mugaren printzipioa betetzen dela ziurtatzeko.*

- *Dokumentazio-artxiboa egoki antolatzea.*

- *Udal ondasun eta eskubideen inbentarioa gaurkotzea eta onestea, eta, ondoren, ondasun guztiak eskrituratuta eta erregistratuta daudela egiaztatzea.*

- *Egoeraren balantzearen kontusailletako kontabilitate-saldoak berrikusi eta, kasua bada, erregularizatzea, entitatearen ondasunaren osaera behar bezala erakutsi dezan.*

- *Dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko.*

Txosten honen 1. eranskinean jaso da udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko abenduaren 31ko organigrama.


VII.2. UDALAREN 2007TIK 2010ERA BITARTEKO AURREKONTUEN ETA 2011KO AURREIKUSPENEN LIKIDAZIOAREN BILAKAERA

Ondoko taulan, Castejongo Udalaren aurrekontu-likidazioen bilakaera ematen dugu, kapituluz antolatua, bai eta 2011rako aurreikuspenekiko alderaketa ere.

Kap.	Gastuak	2007	2008	2009	2010	2011- aurrekontua
1	Langileria-gastuak	1.862.947,56	1.919.842,79	1.745.056,69	1.927.806,21	1.765.338
2	Ondasun arruntzen eta zerbitzuen gastuak	2.533.896,43	2.201.762,85	2.129.620,83	2.148.703,25	2.233.117
3	Gastu finantzarioak	242.648,12	391.491,64	393.401,66	253.860,92	261.925
4	Transferentzia arruntak	487.006,69	568.789,65	449.604,41	481.579,14	417.600
6	Inbertsio errealak	8.651.528,30	9.545.571,72	3.453.483,47	1.992.429,53	330.000
7	Kapital transferentziak	60.000,00	6.100,00	0		
9	Finantza-pasiboak	512.574,15	521.188,11	608.514,35	635.262,33	702.400
	Gastuak, guztira	14.350.601,25	15.154.746,76	8.779.681,41	7.439.641,38	5.710.380

Kap.	Diru-sarrerak	2007	2008	2009	2010	2011- aurrekontua
1	Zuzeneko zergak	1.928.713,74	2.764.664,87	2.988.072,72	3.050.335,54	3.153.000
2	Zeharkako zergak	528.805,56	1.749.395,69	555.663,03	65.600,86	150.000
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.700.344,74	665.535,80	561.613,93	526.871,55	506.750
4	Transferentzia arruntak	1.395.483,71	1.522.422,67	1.568.975,16	1.651.629,64	1.535.130
5	Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	147.641,49	138.181,83	169.465,19	269.935,83	187.500
6	Inbertsio errealen besterentzea	2.303.968,35	1.370.610,44	103.200,14	0,00	178.000
7	Kapital transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	2.304.654,17	2.351.014,92	2.260.152,74	1.902.815,24	0
9	Finantza-pasiboak	2.400.000,00	3.285.000,00	2.404.626,34	0	0
	Diru-sarrerak guztira	13.709.611,76	13.846.826,22	10.611.769,25	7.467.188,66	5.710.380

Grafikoki, bilakaera hori ondoko koadroan erakusten dugu:



Aurreko datuen azterketatik, honakoa azpimarratzen dugu:

– Guztizko gastuen eta diru-sarreraren murrizte progresibo eta nabarmenerako joera oso argia. Horrela, 2007. urteari dagokionez, 2010eko gastuak eta diru-sarrerak ehuneko 48 eta 45 jaitsi dira, hurrenez hurren; alderaketa 2011ko aurreikuspenekin eginez gero, berriz, portzentaje horiek ehuneko 60 eta 58 dira. Azken batez, ia erdiraino jaitsi dira.

2009ko irailean, alkateak aurrezki neurri batzuk planteatu zituen (Saneamendu Finantzarioko Plana), ondorengo ekitaldietako aurrekontua orekatzeko. Horietatik, ondokoak azpimarratuko ditugu:

- Inbertsioengatikoko gastuei eustea, zuzeneko finantziazioa dutenei izan ezik. Horrek berarekin dakar inbertsioetarako mailegu berririk ez hartzea.

- Langileriaren arloan, obren brigadarako aldi baterako langileen kontratazioa murriztea.

- Jai, kultur jarduera eta kirol jardueren ondoriozko gastuak gutxitzea, 150.000 euro hain zuzen.

- 2009an mailegu batzuk birfinantzatzea, haien baldintza finantzarioak hobetzeko.

Neurri horiek orientatu dituzte 2010eko eta 2011ko aurrekontuak, eta aurrekontu-kredituen gutxitze handiaren arrazoia dira.

– Gastuei dagokienez, hurrengo taulan indize bidez erakusten dugu adierazle nagusien bilakaera:

Gastuen adierazleak	2007	2008	2009	2010	2011ko aurrekontua
Gastu arruntak	100	99	92	94	91
Funtzionamendu-gastuak	100	96	89	93	90
Inbertsio errealetako gastuak	100	110	40	23	4
Finantza-zama	100	121	133	118	128

Ikusten den bezala, gora egiten duten gastu bakarra finantza-zama da, 2009ra arteko inbertsioak finantzatzeko zorra hartzearen ondorioz; gainerako gastuek behera egin dute, eta inbertsioen murrizketa handia nabarmentzen da. Halaber,

gastu arruntetan eta funtzionamendu-gastuetan antzematen den kontrolperatzea nabarmentzen dugu.

– Diru-sarreretarako eta indize bidez, honakoak azpimarratzen ditugu:

Diru-sarreraren adierazleak	2007	2008	2009	2010	2011ko aurrekontua
Diru-sarrera arruntak	100	102	87	83	83
Kapitaleko diru-sarrerak	100	81	51	41	4
Pasiboak hartzea	100	137	100	0	0

Hau da, diru-sarrera guztien beheranzko joera berresten da, bereziki inbertsioak finantzatzera bideratutako diru-sarrerena. Diru-sarrera arruntetan, joera hori askoz ere leunagoa da, eta nolabaitteko egonkortasuna antzematen da 2009tik. Bes-

talde, mailegu berririk ez da hartu, finantziazio iturri gisa, 2010etik.

– Aurrezki gordinaren eta garbiaren bilakaera aztertuz gero, hona emaitzak:

Aurrezkiak	2007	2008	2009	2010	2011ko aurrekontua
Aurrezki gordina	1.817.139	2.149.806	1.519.508	1.006.285	1.116.325
Indizea	100	118	84	55	61
Aurrezpen garbia	1.061.916	1.237.126	517.592	117.162	152.000
Indizea	100	116	49	11	14

Bi adierazle horiek erakusten dute beheranzko joera argia dagoela. Bereziki nabarmentzen dira aurrezki garbiaren balioak, eta horrek berarekin dakar muga irmoa egotea inbertsio berriak baliabide arruntekin finantzatzeko.

– Azkenik, zor biziaren eta zorpetze-adierazle-en bilakaera alderatu dugu

Zorpetzea	2007	2008	2009	2010	2011ko
					aurreikuspenak
Zor bizia	6.980.863	9.744.675	11.540.786	10.912.315	10.193.709
Indizea	100	140	165	156	146
Finantza-zama	755.222	912.680	1.001.916	889.123	964.325
Indizea	100	121	133	118	128
Zor bizia/diru-sarrera arruntak, %	104	142	197	196	184
Zorpetze-maila	% 11,27	% 13,34	% 17,15	% 15,98	% 17,43
Zorpetzearen muga	% 27,12	% 31,43	% 26,00	% 18,08	% 20,17

Ikusten den bezala, zor bizia nabarmen joan da hazten 2009ra arte, eta, batez ere, inbertsio berriak finantzatzera bideratu da; 2010etik aurrera, eta mailegu berriak ez hartzeko udalaren politikaren ondorioz, beheranzko joera bat hasi da. Logikoa den bezala, joera bera ikus daiteke udalak pairatzen duen zama finantzarioan.

Adierazleei dagokienez, zor biziak diru-sarrera arruntetan egiten duen ehunekoak nabarmen gaintitzen du legez ezarritako muga, ehuneko 75ekoa; hori dela eta, udalak ezin du mailegu gehiagorik eskatu, indarreko arauen arabera. Zorpetze mailak nabarmen egin du gora; zorpetzea-

ren mugak, berriz, behera egin du modu adierazgarrian; horrenbestez, zorpetze berriak hartzeko finantza-ahalmena nabarmen jaitsi da (2007an ehuneko 15,85 izatetik 2011n ehuneko 2,74 izatera).

VII.3. LANGILE-GASTUAK


Langileen kapituluan aitorturiko betebeharrak 1,93 milioi euro egiten dute; alegia, 2010eko ekitaldian aitortutako gastu guztien ehuneko 26. Ehuneko 96 exekutatu dira, eta 2009ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 10 egin dute gora.

Hona xehakatzeari, 2009arekin alderatuta:

	Aitorturiko betebeharrak		Aldaketa, ehunekotan
	2010	2009	
Goi karguak	48.777	62.064	-21
Funtzionarioak	764.244	732.637	4
Langile finkoak	58.761	61.928	-5
Aldi baterako lan kontratupekoak	445.712	313.795	42
Gizarte zamak	614.312	574.633	7
I. kapitulua, guztira	1.927.806	1.745.057	%10

Hurrengo irudian erakusten ditugu langile gastuek 2007tik 2010era izan duten bilakaera eta 2011ko aurrekontua. Ikusten den bezala, 2009an, goranzko joera hautsi da; joera horren oinarritzko arrazoia izan da aldi baterako kontratazioak behe-

ra egin duela. Kontratazio hori 2010ean berriz oneratu zen. 2011ko aurreikuspenek gastu hori berriz ere beheratu egiten dute, bai arestian adierazitako arrazoiarengatik, bai urte horretan langileen soldatetan aplikatu den izoztearengatik.



Udalak 2010erako duen plantilla organikoak 35 lanpostu dauzka. Horietatik, 11 hutsik daude. Hona taula:

	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	31	22	9	6
Lan-kontratupekoak	4	2	2	1

Hau da, 31 langile efektibo dago: 22 funtzionario, lan kontratupeko 2 langile finko eta behin-behinekoz kontratatutako 7 langile. Behin-behineko langile horiei dagokienez, azpimarratzen dugu guztiek gutxienez ere 5 urteko antzintasuna dutela udalean.

2010ean, ofizial administraria izateko bi lanpostutarako oposizio-lehiaketa murriztua izapidetu zen.

Aurreko langileez gainera, udalak aldi baterako kontratatu izan ditu langileak. Langile horietako batzuek kontratazioko hiru urteko aldia gainditzen dute, eta ez da beti jasota ageri haien kontratazioa merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera egin izana. Horri dagokionez, udal idazkaritzaren txosten bat badago, non agerian jartzen baitira aldi baterako kontratazioaren arloan gertatzen diren egoera irregularrak.

Udalak emandako informazioari jarraituz, udalean 2010ean guztira lan egin duten pertsonak 65 dira (2009an, 55). Langile horiei hiru ordainsari mota aplikatzen zaizkie:

- Funtzionarioak: foru legedian ezarritako ordainsariak dauzkate.

- Lan kontratupeko langileak: Nafarroako Gobernuaren lan kontratupeko langileen hitzarmen kolektiboa.

- Lan kontratupeko langileak, obretarako aldi baterakoak: eraikuntzaren arloko hitzarmena.

Udal langileei 12/2010 Foru Legean aurreikusitako ordainsari-murrizketak aplikatu zaizkie. Murrizketa horien zenbatekoa, 6.791 euro, zorra aurrez amortizatzeke erabiliko da.

Langile gastu horiei buruz eginiko azterketatik eta ofizial administrari izateko bi lanpostu betetzeko espedientetik ondorioztatzen da, orokorrean, arau indardunak egoki betetzen direla. Edonola ere

Hona gure gomendioak:

- *Behin-behinekoz betetako lanpostuak eskaini eta haiek behin betiko betetzeko dei egitea komeni ote den aztertzea, plantilla finkatze aldera.*

• *Halaber, behin-behineko langileei 2010etik emandako zerbitzuarengatik antzinasuna ordaindu behar zaie.*

• *Merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatu behar dira langileak aldi baterako hautatzekoan, eta xede horretarako eginiko hautapen probak egoki artxibatu behar dira.*

• *Langile-espeditentek osatu behar dira haien familia-egoerari buruz eginiko aitortpen eguneratuarekin.*

Azkenik, 2010eko langile-gastuak aztertuz gero, zama sozialak alde batera utzita, diharduten arlo edo jardueraren arabera, honakoa ikusiko dugu:

Arloa	Zenbatekoa, 2010	%
Administrazio orokorra	150.011	11,33
Udaltzaingoa	270.247	20,42
Oinarrizko gizarte zerbitzua	84.105	6,35
Obra-brigada	349.209	26,38
Kultura arloko koordinazioa	36.070	2,72
Gazteentzako informazio bulegoa	23.537	1,78
Kontu-hartzailtza	85.898	6,49
Babestutako enplegu soziala	95.560	7,22
Ikastetxe publikoa	18.445	1,39
Tokiko enplegu plana	63.058	4,76
Oinarrizko errenta	98.526	7,44
Immigrazioa	10.121	0,76
Kultur eremuak	38.944	2,94
Guztira	1.323.731	% 100


Ikusten den bezala, udal poliziaren eta obra-brigadaren artean langile gastuen ia ehuneko 50 egiten dute.

Udaltzaingoari dagokionez (9 udaltzain), Cas-tejongo Udala, 2009an, bigarren tokian dago Nafarroako udalen artean "udaltzainen kopurua populazioaren arabera"-ratioan: 2,12 Lehenengo tokian Iruñeko Udala dago: 2,19

VII.4. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketek 2,15 milioi euro egin dute 2010ean; haien ehuneko 98 exekutatu da. Kapitulu honek gastuen aurrekontuko guttizkoaren ehuneko 29 egiten du, eta soilik ehuneko 1 egin du gora 2009. urtetik.

Hurrengo taulan erakusten da kapitulu honetako gastuan 2007tik 2010era izan den bilakaera, bai eta 2011ko aurrekontua ere.



Ikusten den bezala, 2008tik gastu horri kontrolpean eutsi egin zaio, baina 2011ko aurreikuspenetan berriz ere gora egiten du.

Kapitulu honetako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketatik ondorioztatzen da haren izapidetzea kontratuei buruzko legediaren arabera egin dela eta behar bezala onetsita, kontu-hartzailetzak aztertuta eta kontabilizatuta daudela. Halere, ondokoa adierazi beharra dago:

- Zenbait gastu errepikari urte amaieran halako zenbatekora iristen dira non kasuko kontratazio espedienteak abiarazi beharko bailitzateke, nahiz eta inguruabar hori ezin den beti taxuz aurreikusi.

- Laguntza-kontratu batzuek (esate baterako, hirigintzako aholkularitzarena eta agentzia exekutiboarena) egungo arauetan ezarritako indarraldiepeak gainditzen dituzte.

Hona gure gomendioak:


- *Urteko gastuen bolumena aldez aurretik balioets daitekeen kasuetan, kasuko kontratazio espedienteak izapidetzea.*

- *Kontratazio espediente berriak izapidetzea legedi indardunean adierazitako indarraldia gainditu duten kontratueterako.*

VII.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentziek 0,48 milioi egiten dute 2010ean, eta haien ehuneko 108 bete da. Horrenbestez, ez da errespetatzen gastueterako kredituak mugatzearen printzipioa. Aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 6 egiten dute, eta ehuneko 7 igo dira 2009aren aldean. Guztiak ere arruntak dira.

2007tik 2010era bitarteko bilakaera eta 2011ko aurrekontua ondoren islatzen da. Gastu mota horretan, nolabaiteko egonkortasuna dago aldi horretan. Halere, beheranzko joera dagoela antzematen da.



Transferentzia nagusiak honakoak finantzatzekoak dira: udalaren erakunde autonomoak (367.742 euro); irabazi asmorik gabeko erakundeak (61.313 euro); udal igerilekuaren kudeaketako defizita (42.000 euro) eta partzuergoentzako ekarpenak (9.299 euro).

- Lehiaketa dagoen diru-laguntzei (irabazi asmorik gabeko erakundeak) dagokienez, exekuzio-oinarriek gaingiroki arautzen dute haiek nola emanen diren, baina ez dira ezartzen haiek emateko irizpide egokiak, eta ez da aipatzen, ezta ere, beste diru-laguntza publiko batzuekiko egon daitekeen bateragarritasuna. Arau gisa, aurrekontuko dirua eskatzaile guztien artean banatzen da. Ez da jasota ageri, ordea, banaketarako aplikatu den

oinarria. Eginiko azterketatik ondorioztatzen dugu ezen, orokorrean, gastu horien izapidetzea egokia dela. Halere, ikusten dugu ez dela beti exijitzen exekuzio oinarrietan jasotakoa.

Diru-laguntza horien artean, Castejongo futbol klubak jasotakoa nabarmentzen dugu, 24.000 euro hartu baititu. Bestalde, aipatutako klubarekin sinaturiko hitzarmenari jarraituz, udalak bere gain hartzen ditu zuzenean udalaren futbol zelaiko kontsumoetan eta mantentze-lanetan egindako gastuak –aurrekontuko 2. kapituluaren jasotzen du hori–. 2010ean, 13.828 euro izan dira. Azken batez, kirol jarduera horrek udalari ekartzen dion guztizko gastua 37.828 eurokoa da; hau da, 8,78 euro biztanle bakoitzeko.

Udal igerilekuak, 2007tik, enpresen aldi baterako batasun bati eginiko emakida baten bidez kudeatzen dira. Hasiera batez 8 urteko emakida da, 30 urtera bitarte luza daitekeena. Udalak 1.000 euroko urteko kanona kobratzen du. Emakida arautzen duten klausuletan aurreikusten da udalak parte hartzea kudeaketa horretatik heldutako onuretan eta galeretan; galerak izatekotan, haien ehuneko 40 hartzen du bere gain, 42.000 euroko mugarekin.

2010eko aurrekontu-likidazioan islatutako zenbatekoa—42.000 euro— dagokio udalak 2009ko ekitaldiko galerak ordaintzeko eginiko ekarpenari. Zenbateko hori udalak ordaindu beharreko gehieneko kopurua da, hain zuzen.

2010eko otsailean, udalak kontratu horren aldaketa bat onetsi zuen. Haren bidez, udalak zuzenean hartu ditu bere gain instalazioetako elektrizitate, ur eta gas gastuak, lehenago adjudikazio-hartzaileari zegozkionak. Aldaketa hori kontratuaren oreka ekonomikoari eusteko beharrarengatik justifikatzen da. Gastu horiek bere gain hartzeak, urte horretan, 156.000 euro inguruko gastua ekarri dio udalari.

2010ean, enpresen aldi baterako batasunak 101.520 euroko galera aurkeztu zuen, eta udalak haren ehuneko 40 ordaindu zuen, zegozkion bezala; hau da, 40.608 euro, 2011ko aurrekontuari egotzi zitzaizkionak.

Bere jarduera justifikatzeko, enpresak baturen eta saldoen balantze bat baizik ez zuen aurkeztu, udaleko kontu-hartzaileak kontroleko eta jarraipene txostena egin ahal zezan, zeina kontratuko baldintza-orrietan jasotzen baita, lortutako galerak baliozkotzeari dagokionez. Balantze horrek biltzen dituen gastuen barruan, 40.000 euroko kontusail bat ageri da “gastu orokorrak eta industria-etekina” izenaren pean.

Azken batez, kirol instalazio berri eta oso batzuk emakidan emateko kontratu baten aurrean gaude, horren truke udalarentzat urteko 1.000 euroko kanona ezartzen duena. Kontratua kontratistaren arrisku

eta menturara adjudikatu da, baina bertan jada ezartzen da udalak galeren ehuneko 40 hartuko duela bere gain, eta geroko kontratu-aldaketaren bidez, bere gain hartzen ditu, halaber, elektrizitate, ur eta gas gastuak, hain zuzen ere munta handieneko gastuak, kirol instalazioen ustiaketa osoan.

Hori guztia ikusita, hauxe gomendatzen dugu:

- *Zorrotz bete behar da irabazi asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzei buruz exekuzio oinarrietan ezarritakoa.*

- *Banaketa-irizpideak ezartzea diru-laguntzak emateko, udalak lehenasunezkatzat jotzen dituen xedeei erreparatuta. Halaber, diru-laguntza horiek beste administrazio publiko batzuek emandakoekin bateragarriak ote diren aztertzea.*


- *Igerilekuen defizita finantzatzeko, kontratuan zabalago ezarri behar da, eta zehaztu behar da, zein informazio eta dokumentazio aurkeztu behar duen adjudikazio-hartzaileak, udalaren kontu-hartzailetzak egoki garatu ahal dezan galera horiek kontrolatzeko eta egiaztatzeko lana.*

- *Halaber, igerilekuen kontratu horretarako, komeni da aztertzea komenigarria ote den egungo kontratu-baldintzei eustea.*

VII.6. INBERTSIOAK

Ekitaldian egindako inbertsioek ia 2 milioi euro egiten dute, eta behin betiko aurrekontuaren ehuneko 98 bete da. Kapitulu honek ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 27 egiten du, eta ehuneko 42 egiten du behera 2009. urtearekin alderatuta.

Ondoren, 2007-2010 urteetako bilakaera erakusten dugu, bai eta izaera horretako gastuen 2011ko aurrekontua ere. Ikusten den bezala, 2007an eta 2008an, udalak inbertsio-ahalegin handi bat egin zuen; 2009tik aurrera, berriz, beherakada nabarmena izan zen, 2011rako aurreikuspenetan berretsi dena.



Udalak azken hamar urteetan egin duen inbertsio-ahalegina ondoko taulan adierazi duguna da. Ikusten den bezala, aldi horretan, udalak 33,24 milioi euroko inbertsioa egin du, guztira; inbertsio

horien ehuneko 29 xededun diru-laguntzen bidez finantzatu dira, eta gainerakoak, zorpetzearen bidetik, ondarea salduz eta bestelako baliabide bereki batzuen bitartez.

Inbertsioa	Zenbatekoa
Futbol zelaia	2.028.284
Kultur etxea	2.154.845
Museoa	1.831.609
Udal haurtzaindegia	2.528.306
Igerilekuak	9.347.615
Zahar-etxea	5.156.998
Eskola jantokia	548.102
Kontsultategia	381.156
Ikastetxe publikoa handitzea	576.655
INEMen laguntzarekin egindako obrak	1.884.385
Urbanizatzeko obrak	6.134.836
Bestelako inbertsioak	670.872
Guztira	33.243.663

2010ean, honakoak adjudikatu dira:

- 0,83 milioi egiten duten bost obra kontratu; horietatik hiru prozedura irekiaren bidez, eta beste bi publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

- Hiru hornidura-kontratu –guztiak ere prozedura irekiaren bitartezkoak–, guztira 151.524 euro

egiten dutenak, eta bi laguntza-kontratu –bata irekia eta bestea negoziatua, publiziterik gabe–, 111.693 euro egiten dutenak.

Berrikusi egin dugu kapitulu honetako gastu-lagin bat, honako kontratazio-espeditenteak barne (BEZik gabeko zenbatekoak):

Espedientea	Mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Kirol instalazioak egokitu eta hobetzea	Obra	Irekita, eskaintza onenarentzat	497.231	8	361.963
Bihotz-hodietarako eta muskulaziorako makinaren homidura	Homidura	Irekia, Europar Batasunean publiziterik egin gabea	117.729	3	116.873


Aztertutako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, espeditenteak aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla.

Aurten bertan, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsetik 0,44 milioi jaso dira, sei jarduera finantzatzeko erabili direnak.

VII.7. FINANTZA-ZAMA

Gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluaren baturak 0,89 milioi egiten ditu 2010ean. Gastuen guztizkotik ehuneko 12 egiten du. 2009. urtearen aldean, ehuneko 11 jaitsi da.

2007tik 2010erako aldiaren izandako bilakaera eta 2011ko aurrekontua ondoren adierazten ditugunak dira:



2010ean, udalak ez du mailegu berririk hartzeko beharrik izan, eta langileen ordainsarrietan izandako murrizketa amortizazio aurreratua egiteko aplikatuko du.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu hauen izapidetzea eta kontabilizatzea egokia dela. Hala ere:

• 9. kapitulua kreditu eskuragarrien gainetik exekutatu da.

• Zorrek balantzean eta zorraren egoera-orrian duen islak zuzendu beharreko desberdintasun arinak dauzka.

Aurreko zorraren osotasunean, 1996tik 2009ra arte eskatutako maileguak sartzen dira. Interes aldakorreko maileguak dira, euriborra gehi ehuneko zenbateko bat erreferentzia gisa dutenak. 2010eko abenduaren 31n, zor bizia 10.912.315 eurokoa da. Urte bakoitzeko mugaeguna ondoko taulan ageri dena da:

Zor bizia	Mugaeguneratze-urtea	%
6.596	2011	0,06
5.113	2012	0,05
88.243	2013	0,81
85.654	2014	0,78
72.121	2016	0,66
1.247.840	2017	11,44
737.500	2025	6,76
1.200.000	2026	11,00
1.649.375	2028	15,11
5.819.873	2029	53,33
Guztira, 10.912.315,49		% 100

Ikusten den bezala, 2016ra arte, zor horren ehuneko 2,36 baizik ez da mugaegunera iritsiko; urte horretatik aurrera, berriz, zenbateko hori nabarmen igoko da. Nabarmentzekoa da 2028an eta 2029an haren ehuneko 68,44 iritsiko dela mugaegunera. Hau da, amortizazio aldi luzea duten maileguak hitzartu dira, eta gastu horren aurrekontu-eraginak epe oso luzera eraman dira.

VII.8. TRIBUTU BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Udalaren aitorturiko eskubideek 3,64 milioi euro egiten dute 2010ean; ehuneko 13ko jaitsiera izan da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kapitulu- en arabera, honela banatzen dira:

	Euroak		Aldearen %, 2010/2009
	2010	2009	
Zuzeneko zergak	3.050.336	2.988.073	2
Zeharkako zergak	65.601	555.663	-88
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	526.872	561.614	-6
Tributu bidezko diru-sarrerak, guztira	3.642.809	4.105.350	-13

Hona aldaketa nagusien justifikazioa:

- Zuzeneko zergek igoera arina izan dute; zeharkako zergek (EIOZ), ordea, jaitsiera nabarmena (ehuneko 88).

Ondoko taulan erakusten dugu zerga-figura horiek 2007tik izan duten bilakaera:

Kontzeptua	2007	2008	2009	2010	2011ko aurrekontua
Landa lurren kontribuzioa	12.359	12.249	11.990	11.985	12.000
Hirilur kontribuzioa	1.335.303	1.862.850	2.151.535	2.115.250	2.220.000
Ibilgailuak	157.371	173.308	186.733	190.693	191.000
Lurren balio gehikuntza	-10	102.921	21.694	5.888	5.000
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	423.690	613.337	616.120	726.520	725.000
EIOZ	528.806	1.749.396	555.663	65.601	150.000

Ikusten den bezala, zuzeneko zergen multzoak pixkanaka egin du gora 2009ra arte. Gaur egun, nabarmentzekoa da jarduera ekonomikoen gaineko zerga izaten ari den igoera; EIOZaren ondoriozko diru-bilketa, ordea, balio txikienetan dago, batez ere 2008an bildutako zenbatekoetatik oso urrun. Jokaera honakoen ondorioa izan da: eraikuntzaren sektorean eragin duen krisi ekonomikoa eta ziklo konbinatuko zentral termikoetan egindako zabalpen batetik heldu den EIOZa 2008an aitortu izana.

2011ko aurrekontu-datu horiek berresten dute tributu bidezko diru-sarrera horiek beren horretan geratu direla.

Udalak aplikatutako tasak kokatzen dira Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	2/95 Foru Legea	Udala, 2010
Lurralde Kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	
Landa-kontribuzioa		0,8
Hiri-kontribuzioa		0,4
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1 eta 1,4 bitarte	1,4
Lurren balio gehikuntza		
Gaurkotze koefizientea	2tik 3,8ra	2,6
Karga tasa	8 eta 20 bitarte	10,24
EIOZ	2tik 5era	4,5


Balorazio-ponentzia 2005ean gaurkotu zen.

- Komeni da nabarmentzea hirilur kontribuzioa-rengatik aitortutakoaren ehuneko 55 udalerrian kokaturiko zentral termikoek sortutako diru-sarrerari dagokiela. Diru-sarrera horien egoerari dagokienez, txosten honetako VII.10 atalera jo beharra dago.

- Tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarretan, ikusten da jaitsiera ia orokorra izan dela

haien kontzeptu guztietan, errekaruen salbuespenarekin; izan ere, aurreko urtekoaren ia hiru halako da (2009an bildutako 16.154 euroko kopurutik 2010ean 46.551 euroko kopurura pasa da). Igoera handi hori heldu da krisi ekonomikoko garai honetan zergak kobratzea errazte aldera udalak erabili duen politika batetik.

Ondoren emanen duguna da diru-sarrera horien 2007tik 2010erako bilakaera eta 2011ko aurrekontua.



Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Balorazio-ponentzia berri bat egiten ez den bitartean, udalak hirilurrei eta landalurrei aplikatze-koak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 139. artikuluan aurreikusitako lurralde-kontribuzioaren tasa bateratura, zeina 2006ko urtarillaren 1etik dagoen indarrean. Horrenbestez, landa-kontribuzioari 2010ean aplikatu beharreko tasak

–0,8– tasa bateratuaren gehieneko muga –0,5– gainditzen du.

- Tasa eta prezio publikoak ez dira bermatzen nahitaezkoak diren kostu-azterlanekin.

- Agentzia exekutiboarekiko kontratua 2000n egin zen, nabarmen gaindituz aurreko kontratuerregulazioan ezarritako sei urteko gehieneko indarraldia.

Hona gure gomendioak:

- Balorazio ponentzia berri bat onestea eta lurralde-kontribuziorako tasak planteatzea, lege indardunetan ezarritako denbora-tartean.

- Tasa eta prezio publikoen tarifak bermatzea kostuei buruz behar den azterlana eginez.
- Agentzia exekutiboarekiko kontratazio espedientea izapidetzea, dagokion bezala.

VII.9. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarreraren multzoa eta haien bilakaera ondorengo taulan ikus daitezke:

	Euroak		Aldearen %, 2010/2009
	2010	2009	
Transferentzia arruntak	1.651.630	1.568.975	5
Ondarearen diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	269.936	169.465	59
Inbertsio errealen besterentzea	0	103.200	-
Kapital transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	1.902.815	2.260.153	-16

Egindako azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

- Transferentzien eta diru-sarreraren bidezko diru-laguntzen menpekotasuna ehuneko ia 48koa da; ehuneko hori 12 puntutan handiagoa da aurreko ekitaldiari dagokiona baino. Portzentajeen igotzea hori heldu da jasotako diru-laguntzen kopuru orokorretik ez, baizik eta guztira aitorturiko eskubi-deen zenbatekoa txikiagoa izatetik.
- Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatuko Funtsetik, guztira, 0,44 milioi jaso dira; 2009ko E Planeko diru-sarrerak, berriz, 0,70 milioi izan dira.

- Enpresa elektrikoetako batetik, udalak 90.000 euroko diru-laguntza jasotzen du, kultur jarduretarako.

- Udalak eguzki energia lortu eta gero saltzen du. 2010ean, 41.584 euroko diru-sarrerak izan ditu.

- Inbertsioak besterentzetik heldutako diru-sarrerak behera egin dute pixkanaka 2007tik, harik eta 2010ean inongo diru-sarrerarik ez sortu arte, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. Diru-sarrera horiek etxebizitza babestuetarako eta familia bakarreko etxebizitza libreetarako lur-sailak saltzetik heldu dira.

Ekitaldia	Inbertsio errealak besterentzeagatikoko diru-sarrerak	%, diru-sarrera guztien gainekoa
2007	2.303.968	17
2008	1.370.610	10
2009	103.200	1
2010	0	0

2007an, gisa horretako diru-sarrerak aurrekontuko diru-sarrera guztien ehuneko 17 izatera iritsi ziren.

Aldi horretan, 3 lurzati –guztira, 2.024 m²-ko azalera– saldu ziren lehiaketa bidez, etxebizitza babestuak egiteko; enkante bidez, berriz, 19 lurzati –13.403 m²– saldu ziren, familia bakarreko etxebizitza libreak egiteko.

- Ez da ageri hirigintzako eragiketen (aprobetxamenduak eta urbanizazio kuotak) ondoriozko diru-sarrerarik; 2007 eta 2010 bitarteko aldiak, soilik aipatutako lehenengo urtean 0,55 milioiko diru-sarrerak izan ziren urbanizazio kuotengatik.

Kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

VII.10. HIRIGINTZA

Hirigintzako kudeaketa udalaren beraren bitartez egiten da, baina zerbitzu profesionalak emateko laguntza kontratuen bidezko kanpoko aholkularitza-rik badu (arkitekto tekniko bat eta arkitektoen bulego bat).

Udal plangintza indarduna 1991ko maiatzean onetsitako arau subsidiarioek osatzen dute.

Harrezkero, planeamendu honek afekzio handiak izan ditu, honakoei buruzko udalez gaindiko 13 plan sektorialen ondoriozkoak: gaseoduktua, Nafarroako Ubidea, zentral termikoak, errepideak eta abar. Halaber, 29 aldaketak eragin dute harengan.

2010ean, xehetasuneko bi azterlan eta antolamendu plan berezi bat onetsi dira.

Ez dira ageri beharrezkoak diren lurzoruaren udal ondareari buruzko erregistroak eta hirigintza hitzarmenenak. Halere, 2010ean, ez da haiengan eraginik izan dezakeen eragiketarik antzeman.

Aipatutako arau subsidiarioen aurreikuspenak neurri handi batean bete direnez, eta aldaketa ugari egin direnez Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko existenzialekin batera, planeamendu-arauak bere eduki eta sistematikaren arabera egokitu eta homologatzekoak, udalak udal plan orokor bat onesteko izapideak hasi ditu.

Hartara, 2010eko azaroan, Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen udal plan orokorra. Gero, Nafarroako Gobernuari igorri zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen. Txosten hau idazteko garaian, Nafarroako Gobernuaren behin betiko onospena falta da.

Horiek horrela, hona hemen gure gomendioak:

- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, bai lursailenak bai eskudiruarenak, eta hura indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa taxutzeta.*

VII.11. GORABEHERAK ETA ZALANTZAK

Udalak planteatuta dauzkan gorabeherak eta zalantzak honakoei buruzkoak dira:

- Zentral elektrikoek eginiko errekursoak, Nafarroako Gobernuaren balorazioaren arabera –haiek higiezin berezitat hartuta– udalak igortzen dien kontribuzioari buruzkoak. Bi enpresek errekursoak aurkeztu zituzten turbinak higiezinei buruzko aipatutako balorazioan sartzearen aurka. Horietako baterako, Auzitegi Gorenak deklaratu zuen irmoa zela Nafarroako Gobernuak eginiko balorazioa; besterako, berriz, Nafarroako Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion enpresa elektrikoari eta beste balorazio bat eskatu zuen; horrenbestez, enpresak ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatu zuen.

Hala eta guztiz ere, azken enpresa horrek hitzarmen bat egin zuen udalarekin. Haren bidez, erabakitzen da konturako zenbateko konstante batzuk ordaintzea, 20 urtez. Alabaina, Nafarroako

Administrazio Auzitegiak deusez deklaratu zuen hitzarmen hori.

Gaur egun, lurralde aberastasunari buruzko erregistroari eta Nafarroako katastroei buruzko arau berrien arabera Nafarroako Gobernua prestazioari den balorazio-ponentzia berriaren onspenaren zain gaude (12/2006 Foru Legea). Araudi horretan, turbinak higiezinetan sartzen dira, eta, gainera, udalarentzako diru-sarrerak sortu ahal dituzten beste elementu batzuk jasotzen dira (bidesaridun autobideak).

Egoera horren amaierako emaitzak aipatzeko moduko eragina izan dezake entitatearen diru-sarreretan, zeren eta ezin baita ahaztu enpresa horiek 2010ean 1,17 milioi euro sortu dituztela kontribuzio bidez –hau da, zerga horren diru-bilketaren ehuneko 55, edo ekitaldi horretako diru-sarrera arrunten ehuneko 21–.

- Obretarako brigadako langileen errekursoak, lan egutegia aldatzeagatik, jai-egunetako ordain-sariengatik eta plantilla organikoan jasotako osagarriengatik. Egutegiari dagokionez, lan arloko epaitegiak langileen eskaria baietsi du, eta, horrenbestez, brigadaren 2009tik 2011rako egutegia deuseztatu du; osagarriei dagokionez, kasuko epai judicial irmorik ez dago oraindik.

- Hirigintzaren arloan, AA1 azpi-eremua (Trenasako aldea) antolatzeke plan bereziaren behin betiko onspenaren aurkako errekursoa dela-eta Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman beharreko epaiaren zain gaude. Txosten hau idazteko garaian, udal batzorde bat eratu da arazo hori aztertzeke eta ebazteke.

VII.12. ERAKUNDE AUTONOMOAK

A. Aurrekontuari buruzko informazioa

A 1. "Solidaridad" egoitza

Egoitzak 1.043.550 euroko hasierako aurrekontu/behin betiko aurrekontua dauka; haren aitorturiko betebeharrak 783.585 euro egiten dute, eta ehuneko 75ekoa da betetzearen portzentajea. Haren aitorturiko eskubideek 779.708 euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 75ekoa da.

Egoitzak gastaturiko 100 euroko bakoitza honakoetarako erabili da eta honako bidez finantzatu da:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	69	Tasak eta prezioak	43
Bestelako gastu arruntak	30	Transferentziak	57
Bestelakoak	1		
	100		100

2010eko langile gastuek ehuneko 14 egin dute behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Bestelako gastu arrunten kontusail aipagarriena jantoki zerbitzuari dagokiona da, eta 130.228 euro egiten du.

2010ean zerbitzuak eman dituzten lan kontratuko langileak 20 izan dira guztira, Honakoak, hain zuzen:

- OLT zuzendari bat
- 12 gerokultore
- 2 pertsona sukaldean, zenbait arrazoi tarteko 2011n baja eman dutenak. Ez dago aurreikusita lanpostu horiek betetzea, zerbitzu hori kanpoan kontratatu baita.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuan ari diren 5 pertsona (familia langileak).

Langileen kopuru horrek egonkor iraun du 2007tik 2010era bitarteko aldirian.

Emandako zerbitzuaren izaera dela eta, ordezkapenarako, oporretarako, bajetarako eta abarretarako aldi baterako kontratazio ugari egiten dira;

hartara, 2010ean, 56 pertsonak egin zuten lan egoitzan.

Tasengatiko diru-sarreraren atalean, egoiliarrek ordaintzen dituzten kuotak ageri dira; transferentzien bidezko diru-sarreretan, berriz, ageri dira egonaldiak ordaintzeko eginiko ekarpenak, bai udalarena --305.000 euro-, bai Nafarroako Gobernuarena --140.323 euro-.

2010eko ekitaldiaren aurrekontu-emaizta 3.877 euroko defizita izan da; gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 9.985 euro negatibokoa izan da. Horrenbestez, 270/1998 Foru Dekretuko 103. artikuluan ezarritako neurriak aplikatu beharko dira.

Erakunde autonomo honen gastuen eta diru-sarreraren 2007-2010 urteetako bilakaera ondoren adierazitakoa da. Bietan ehuneko 22ko igoera antzeman da. Gastuetan, langileen igoera ehuneko 7koa izan da; ondasun arruntetan, igoera ehuneko 73koa izan da, zerbitzu batzuk kanpoan kontratatzearen ondorioz. Diru-sarreraren igoerak funtsean udalaren ekarpenetik heldu dira.

Egoitza	2007	2008	2009	2010	Aurrekontua 2011
Gastuak	640.642	751.378	780.943	783.585	990.000
Diru-sarrerak:	640.642	751.378	780.943	779.708	990.000

A.2. Musika eskola

Musika-eskolak 120.000 euroko hasierako/behin betiko aurrekontua dauka 2010ean. Haren aitorturiko betebeharrak 133.833 eurokoak dira; betetzea, berriz, ehuneko 112koa da. Horrenbestez, baliagarri dauden kredituen gainteko gastua aitortu da; horrenbestez, gastua baliagarri dauden kredituen gaintetik aitortu da, eta behar ziren

aurrekontu-aldaketak egin ez zirenez, ez da bete gastuetarako kredituak mugatzearen printzipioa. Aitorturiko eskubideek, guztira, 133.833 euro egin dute.

Eskolak gastaturiko 100 euroko bakoitza honakoetarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	88	Tasak eta prezioak	32
Bestelako gastu arruntak	9	Transferentziak	68
Inbertsioak	3		
	100		100

2010eko langile gastuek ehuneko 29 egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Bestelako gastu arrunten kontusail aipagarriena garbiketa zerbitzuari dagokiona da, eta 7.911 euro egiten du.

2010ean, guztira, 9 izan ziren langileak. Hona haiek nola banatzen diren:

- Zuzendari-irakasle bat, aldizkako langile finkoa dena
- 7 irakasle, aldi baterako kontratatuak irakaskuntza-aldirako.

Entitatea	2010eko ekarpena	%
Familiak	42.326	32
Nafarroako Gobernua	29.901	22
Udala	61.105	46
Bestelakoak	501	-
Guztira	133.833	% 100

2010eko ekitaldiko aurrekontu-emaitza 0 eurokoa izan da; gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina positiboa izan da; 8.695 eurokoa, hain zuzen.

Erakunde autonomo honen gastuaren eta diru-sarreraren 2007-2010 urteetako bilakaera

Musika eskola	2007	2008	2009	2010	Aurrekontua 2011
Gastuak	86.468	96.903	100.821	133.833	117.000
Diru-sarrerak:	83.774	103.847	100.821	133.833	117.000

B. Eginiko lanaren ondorioztapenak, erakunde autonomoei buruzkoak

Eginiko lanaren ondorioz honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Erakunde autonomo hauek, egiazki, udalaren zerbitzu gisa funtzionatzen dute honako oinarritzko alderdiotan: kudeaketa, administrazioa, kontabilitatea, aurrekontuak, diru-sarrerak, nominak eta diruzaintza. Alabaina, berez udalarenak ez direnez, haien eragiketarik ez daude fiskalizatuta –ez ekonomikoki, ez lege aldetik–, ez eta organo eskudunak berariaz onetsita ere.

- Aurrekontuak eta haien likidazioak udalaren osoko bilkurak onesten ditu soilik, patronatuen kasuan kasuko gobernu-batzarren aurretiko egin-tza formalik gabe.

- Atezain bat, aldi baterako lanaldi partzialeko kontratua duena, urte osorako.

Irakasleak ikasturte bakoitzean kontratatzen dira, hartan matrikulatutako ikasleen kopuruaren arabera.

Tasengatiko diru-sarreraren atalean, ikasleek ordaintzen dituzten kuotak ageri dira; transferentzien ondoriozko diru-sarreretan, berriz, ageri dira funtzionamendu gastuak ordaintzeko eginiko ekarpenak, bai udalarena, bai Nafarroako Gobernuarena. Laburbilduz, honakoa da eskolaren finantziazioa:

ondoren adierazten duguna da. Aldi horretan, gastuek ehuneko 155eko igoera izan dute –langile-gastuak, ehuneko 60, eta ondasun arruntetarako gastuak, ehuneko 33–. Udalaren transferentziek ehuneko 81 egin dute gora, eta tarifek, berriz, ehuneko 26.

- Gobernu-batzarren jarduketak funtsean mugatuta daude barne funtzionamenduko gaietara eta zerbitzuko onuradunekiko gorabeheretara.

- Musika eskolan eta langile-gaietan, honakoak dira nabarmentzekoak:

- Ez da plantilla organikoa onesten, eta musika eskolako plantilla organikoa ez da udalekoan sartzen.

- Langile guztiak lan kontratupekoak dira.

- Ez da ageri erreferentziarik edo loturarik dagoenik inongo ordainsari-hitzarmenekin, ez eta ordaindutako ordainsarien zehaztapena onetsi denik ere.

- Kontratazioak eta kontratuak ez dira onesten erakunde autonomoko lehendakariaren ebazpenaren bidez. Ez dira jasota ageri irakasleei aplikatzen zaizkien hautapen irizpideak.

– Atezaintzako langileak alkatearen ebazpen baten bitartez kontratatu ziren.

– Langileen espedienteek ez dute behar den dokumentazio administratibo eta pertsonala jasozten.

– Ez da jasota ageri, 2010ean, antzinasunaren ondoriozko ordainsaririk.

– 2010ean, ez da aplikatu Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituen ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legean jasotako ordainsari murrizketa, salbu eta atezaintzako langilearen kasuan. Murrizketa horren zenbatekoa aplikatu zaio udalak ekarpen txikiagoa egiteari. Aplikatzeko modu hori ez dago arauetan jasota. Txosten hau idazteko garaian, ebazpen bat eman da, eta haren bidez agintzen da langileen lansarrietan aplikatzea aipatutako ordainsari murrizketa.

• Egoitzako langileei dagokienez, honakoak adierazi behar ditugu:

– Egoitzako plantilla organikoa udalekoarekin batera onesten da, baina ez du arauetan exijitzen den informazio guztia biltzen.

– Langile guztiak lan kontratupekoak dira.

– Etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak sartzen dira. Haiek egoitzarekin daukaten harremana honakora mugatzen da: hitzarmen kolektibo bera aplikatzen zaie. Haiek udalarentzat egiten dute lan, eta eskuratzen diren diru-sarrerak udalak berak kudeatzen ditu. Langile horien gastuak egoitzako langileen gastuen ehuneko 17 egiten du.

– Etxez etxeko laguntza zerbitzuko aurreko langileen artean, langile bat badago ez plantilla organikoan, ez langileen zerrendan jasota ez dagoena. Langile horrek bere zerbitzuak eman izan ditu, etenik gabe, epai judizial baten eraginez.

– Ez dago langilerik kudeaketa- eta mantentze-lanetarako. Udalak berak egiten ditu lan horiek.

– Lansari baldintzak 2009an sinatu zen eta 2010erako luzatu den hitzarmen baten bidez arautzen dira.

– Langileen espedienteek ez dute behar den dokumentazio administratibo eta pertsonala jasozten.

– 2010eko abuztutik, 12/2010 Foru Legean aurreikusitako ordainsari murrizketa aplikatu da. Murrizketa hori, dena den, ez da gauzatu ez ekaineko ordainsarrietan, ez aparteko ordainsarian, ez uztailekoan; horiek guztiak 2011ko maiatzean apli-

katu ziren atzera eraginez. Lortutako diru-zenbatekoa erabili da udalaren ekarpenak gutxitzeko. Aplikazio hori, ordea, ez dago arauetan jasota.

• Kontratazio administratiboaren arloan, espedienteak udalak izapidetu eta kudeatzen ditu.

• Kontu korranteetako funtsez baliatu ahal izateko, sinadura bakarra exijitzen da.

• Ez dago epe luzeko zorrik.

• Ez dago jasota udalak zerbitzu horiek emateko emandako ondasunen atxikipenik.

Aurreko ondorioen multzoa dela eta, honako gomendioak aplikatu behar dira:

• *Udalak bere bi erakunde autonomoen egungo egituraketa eta funtzionamendua zorrotz aztertu beharra dauka, ez dadin gerta nahasmendurik eta aplikatzekoa den araudiaren ez-betetzetik, kudeaketa administratiboaren eta langile-kudeaketaren arloetan. Ildo horretatik, gure ustez honakoak egin beharko lirateke:*

• *Musika eskola udal zerbitzu bilakatzeari buruzko azterketa egitea.*

• *Ondorio guztietarako, etxez etxeko laguntza zerbitzua udalari atxikitzea.*

• *Egoitzak, bere zerbitzu-berezitasunak direla eta, erakunde autonomoa izaten jarrai lezake. Alabaina, izaera horri eustekotan, haren kudeaketa administratibo eta kontabilitatekoari buruzko gogoeta egin behar da, eta hura argitu beharra dago, horretarako haren prozedurak eta langile-premiak aztertuz.*

• *Bi erakunde autonomoetan langileak direla eta egin den politika berraztertu beharra dago, hari segurtasun juridiko eta gardentasun handiago emateko, bai eta arloko araudi indardunaren aplikazio zorrotza ere.*

• *Langileen arloko gorabehera administratibo eta ekonomiko guztiak dokumentatu eta egoki artxibatzea.*


• *12/2010 Foru Legetik heldu den araudia bere termino eta zabalpen osoan aplikatzea erakunde autonomo horien langileentzako ordainsariei.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA UDALAREN ORGANIGRAMA, 2010eko ABENDUAREN 31n



Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Ebazpena, 2012ko urtarrilaren 30ekoa, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak emana. Honen bidez onesten da Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak, 2012ko urtarrilaren 30ean, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Comptos Ganberaren 2012rako plantilla organikoan sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu bat betetze nahi da. Erakunde horretako idazkari nagusiak eta administratzaileak horren gainean txostenak prestatu dituzte, eta Zerbitzu juridikoak eta Kontu-hartzailetzakoak ere adostasun txostenak eman dituzte. Hori dena ikusirik, Lehendakaritza honek

EBATZI DU:

Lehenbizikoa. Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia eranskineko oinarriekin bat etorriko da.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezela xedatzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Deialdia, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdiaren xedea da Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzea.

1.2. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduan (NPAO, 2007ko martxoaren 7koa, 2010eko urriaren 22koa eta 2010eko abenduaren 7koa)

xedatuari jarraikiz egingen da lehiaketa, bai eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan (1991ko martxoaren 21a) xedatuari jarraikiz ere.

Horien osagarri aplikatuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua.

1.3. Deialdiaren bidez izendatutako izangaiak Comptos Ganberako funtzionarioentzat eta, zehazki, sistema informatikoetako teknikari-ofizial lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketa-rako Erregelamenduaren 7 bis artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu, honako hauek besteak beste: Ganberako erabiltzaileei laguntza informatikoa ematea haien lanak egiteko; ekipo eta programa informatikoak sistema informatikoetako goi mailako teknikariren zuzendaritzapean edukitzea; erabiltzaileei laguntza teknikoa ematea teknologia berriak eta haien aplikatzeko aukerak erabiltzerakoan; Ganberako sistema informatikoetako goi mailako teknikariari laguntzea tresna informatikoak garatzen eta ezartzen; eta, oro har, instituzioko sistema informatikoetako goi mailako teknikariak agindutako lan guztiak betetzea, betiere bere eskumenen artean baldin badaude.

1.4. Lanpostua C mailakoa da eta horri dagozkion ordainsariak izanen ditu, eta Nafarroako Comptos Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Gehienetan goizeko ordutegian beteko da lanaldia, baina Ganberako organo eskudunek hura edozein momentutan aldatzea daukate, zerbitzuaren beharren arabera.

2. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts hori lekualdatze lehiaketaren bidez beteko da. Lehiaketa horretan parte hartzen ahalko dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko

funtzionarioek, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) C mailako funtzionarioa izatea.
- b) Goi Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako bigarren mailakoa edo baliokideren bat izatea.
- c) Sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren edo sistema informatikoetako teknikariaren lanpostu baterako izendatu izana.

2.2. Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betiko esleituko zaie.

2.3. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da.

Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozesuak iraun bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria. Eskabideak eta horiek aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide baten bidez, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren I. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

Eskabideak interesdunen eskura egonen dira Comptos Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta haren web orriaren "Langileak hartzeko deialdiak" izeneko atalean ere (www.camaradecomptos.org).

3.2. Honako hauek erantsi behar zaizkio eskabideari:

- a) Deialdi honen 2. arauan ezarritako baldintza guztiak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, betetzen dituztelako ziurtagiriak.
- b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, II. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta haien frogagiriak, behar bezala kautotuak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari

zuzenduko zaizkio, eta instituzio horren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Ansoleaga karrika, 10), egun eta ordu baliodunetan (goizeko 8:30etik 14:30era bitarte, astelehenetik ostegunera), hamabost egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren bideak erabiliz. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Desgaitasun aitortua duten lehiatzaileek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskaeran eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasunen bat dutela frogatzeko legezko desgaitasuna frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. oinarria. Izangaiei onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Comptos Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrendak onartutako izangaiei izen-deiturak erakutsiko ditu. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda. Halaber, hura argitara emanen da, Ganberaren iragarki oholean zein www.camaradecomptos.org webgunean.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, horiek zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, hura argitara emanen da, Ganberaren iragarki oholean zein www.camaradecomptos.org webgunean.

4.4. Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratu du. Erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. oinarria. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen lekualdatze lehiaketako epaimahaiko kideak:

Mahaiburua: Javier Arrieta Gutiérrez jauna, Nafarroako Comptos Ganberako sistema informatikoetako goi mailako teknikaria.

Ordezkoa: Karen Moreno Orduña andrea, Nafarroako Comptos Ganberako auditorea.

Mahaikidea: Edurne Martinikorena Matxain andrea, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikaria, instituzioko langileen batzordearen ordezkari.

Ordezkoa: Ainara Rodríguez Jiménez andrea, Nafarroako Comptos Ganberako auditoretzako teknikaria, instituzioko langileen batzordearen ordezkari.

Mahaikide idazkaria: José Luis Ezquerro Royo jauna, Nafarroako Comptos Ganberako legelaria.

Ordezkoa: Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Epaimahaiaren eraketak eta jarduerak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiaren ebazpenak gehiengoz emanen dira eta epaimahaiburuak kalitatezko botoa izanen du.

5.3. Deialdi honen arauak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoz ebartziko ditu.

5.4. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretakoren batean badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

6. oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduen 5.1 artikuluan xedatuarekin bat, merezimendu alegatu eta frogatuak deialdi honen II.

eranskinean jasotako baremoaren arabera kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuak ditu izangai bakoitzak, lekualdatze lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera aurkeztean.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu, lehiatzaileek alegatutako merezimenduen gainean.

6.3. Epaimahaiak ez du inolaz ere kontuan hartu alegatu ez den eta agiri bidez frogatu ez den merezimendurik, eta ez du adierazitako puntuazioa baino altuagorik emanen merezimenduen atal bakoitzean.

6.4. Izangaiek lehiaketan guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, Administrazio Publikoen zerbitzuan antzinasunetik handiena dutenen alde joko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrenaren alde egingen da.

6.5. Merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, epaimahaiak argitara emanen du lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa, Nafarroako Comptos Ganberako iragarki oholean eta web orrian, eta bost eguneko epea ezarriko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidekotzat jotzen duten guztia alega dezaten.

6.6. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta epaimahaiak haien ebatzita, izangaien behin betiko puntuazioak argitaratuko dira Ganberako iragarki oholean eta web orrian. Iragarki horretan, proba praktikoa egiteko tokia, eguna eta ordua emanen dira aditzera.

7. oinarria. Proba praktikoa, lanpostuaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa eta Nafarroako Comptos Ganberaren gaineko ezagutzari buruzkoa.

7.1. Ariketa bakarra egin beharko da idatziz, gehienez ere hiru ordukoa; gehieneko puntuazioa 20 izanen da, eta 10 puntu eskuratu beharko dira hura gainditzeko.

Zenbait galdera erantzun beharko dira Nafarroako Comptos Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen gaineko ezagutzari buruz, eta instituzio horretan egin beharreko lan informatikoaren gorabeherari buruz; honen inguruan izan daitezke horiek:

– Informatika orokorra: ordenagailu pertsonal baten egitura eta osagaiak, zerbitzarien hardwarea, ordenagailu pertsonal baten konexioak eta periferikoak, sareen hardwarea, artxibo multimedialak.

en motak (irudia, bideoa, audioa), haririk gabeko sareak.

– Lan-estazioak: Microsoft Windows XP eta Windows 7 sistema eragileak.

– Zerbitzariak eta bestelakoak: Microsoft Windows 2003 Standard Server, direktorio aktiboa Windowseko inguruneetan, Microsoft Internet Information Server, TCP/IP eta komunikazio protokoloak, administrazio tresnak eta urruneko lana.

– Internet eta posta elektronikoa: Microsoft Internet Explorer 8.0 eta Microsoft Outlook 2003.

– Datu-baseak: Microsoft SQL Server 2008.

– Bulegotika: Microsoft Office 2003: Word, Excel, Access eta Power-Point.

– Informazioaren segurtasuna: segurtasun kopien softwarea eta gailuak, ARC Serve.

– Sarbide seguruko elementuak: ziurtagiri digitalak eta sinadura elektronikoa, datuak enkriptatzea, birusak eta malwarea oro har (Panda antibirusa).

7.2. Plika itxien sistema erabiliko da ariketa hau zuzentzeko. Horretarako, izangaiek, ariketa bukatutakoan, folioak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Ondoren, izen-deiturak bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txikiago batean idatziko dituzte. Bi gutun-azalak itxita aurkeztu beharko dituzte. Proba bukatzean, bi gutun-azalaren epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketa zuzendu ondoren eta kasuan kasuko gutun-azal zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

Gutun-azalak jendaurrean irekitzeko eguna proba egiten ari den bitartean jakinaraziko zaie parte-hartzaileei.

Adierazi bezala, proba hori baztergarria izanen da. Gutxienez ere 10 puntu behar dira gainditzeko. Lortutako puntuazioa instituzioaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko da.

7.3. Proba egiteko orduan, halaxe eskatzen duten minusbaliatuek denbora eta baliabide alde-tik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

8. oinarria. Izangaien zerrenda ordenatua, lanpostuaren esleipena eta izendapena.

8.1. Parte hartzen duten guztien puntuazioa eginen du epaimahaiak, eta izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenaturik, Comptos Ganberako lehendakariari igorriko dio;

hark aginduko du zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

8.2. Ganberako lehendakariak puntuaziorik altuena lortzen duen izangaiari esleituko dio lanpostua, eta izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

9. oinarria. Lanpostuaren jabetza hartzea.

9.1. Izangaiek hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko du lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

9.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengoa den izangaiarekin beteko da lanpostua.

10. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

10.1. Izangaiek, baldin eta erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada, aurkeztu dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik. Agirien itzulketa berariaz eskatu beharko dute eta horretarako hiru hilabeteko epea izanen dute. Izendapenaren erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hiru hilabetera hasiko da epe hori.

10.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak itzultzeko eskatu gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiek uko egin diola agiriak berreskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu eginen dira.

10.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde eginen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

11. oinarria. Errekurtsuak.

Deialdiaren oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsua, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman

edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahalko da, Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Eskabide eredu

Izen-deiturak:,
adina:, NAN zenbakia:, helbidea
(kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea):
.....,
telefono zenbakia:, posta elek-
tronikoa:, adeitasunez,

ADIERAZTEN DUT:

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2012ko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenaren berri izan dut; horren bidez sistema informatikoetako teknikari-ofizial izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko dei egiten da, eta hartan parte hartu nahi dut.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horrenbestez,

ESKATZEN DU:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen frogagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2012koaren(e)an

**NAFARROAKO COMPTOS GANBERAKO
LEHENDAKARI JAUNA**

II. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

1) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak: 25 puntu gehienez.

Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak baloratzeko, puntu bat emanen zaio, urteko, deialdia argitaratzen den egunean onetsi den antzinate-tasunari.

– Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntu izanen da.

3. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Deialdia argitaratu ondoan egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu bada, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

15 puntu gehienez.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 7 puntu.

– Oharrak:

1. Baloratu beharreko ikastaroetan, ikastorduen zatikiak proportzionalki banatuko dira.

2. Eskola orduak zehazten ez dituzten ziurtagiriak kreditu batekoak balira bezala baloratuko dira.

3. Ikasturte bateko iraupena frogatzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.

4. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin baloratuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barruan antolatutakoak sartuko dira.

5. Titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, hala unibertsitatekoak nola unibertsitatez kanpo-koak, ez dira atal honetan baloratuko.

b) Txostenak edo komunikazioak biltzarretan edo jardunaldietan aurkeztea, lan zientifiko edo ikerlan bekadunak edo sarituak egitea eta haiek aldizkari espezializatueta argitaratzea: 4 puntu gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak, kontuan izanik lana edo jarduera norbanakoak edo taldeka egin den, bai eta biltzarra edo argitalpena tokikoa, eskualdekoa, herrialdekoa edo nazioartekoa den ere.

c) Sektore publikoaren esparruan prestakuntza jardueretan irakasle gisa parte hartzea edo haiek antolatzea: 4 puntu gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoak haien iraupenaren arabera.

– Oharrak 2. atal osorako:

1. Atal horretan aipatutako merezimenduak deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanez gero soilik baloratuko dira.

2. Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntu izanen da.

3) Bertze merezimendu batzuk, epaimahaiak baloratu beharrekoak: 5 puntu gehienez.

1. Informatikaren espezialitatea izatea Bigarren Mailako Lanbide Heziketan, edo gradu ertaineko unibertsitateko titulazioa espezialitate horretan, edota goi mailako unibertsitateko titulazioa informatikaren espezialitatean: 3 puntu.

Puntuazio hori aurreko edozein espezialitate-rengatik emanen da, eta ezin izanen da metatu.

2. Euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea:

Europar Batasuneko hizkuntzak jakitateagatik, 0,5 puntu emanen dira oinarritzko mailagatik eta puntu 1 goiko mailagatik.

Euskara jakitea honela baloratuko da: oinarritzko mailagatik 0,60 puntu eta goiko mailagatik 1,20 puntu. EGA titulua, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren ziurtagiria edo agiri baliokidea aurkeztu behar da.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean hainbat tituluren eta egiaztagiriren artean ezarritako baliozkotzeak. 2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ebazpen hori, irailaren 27an.

